

Marokoko tearen errittoa eta euskal gramatika

Batek Euskal Herrian geratu nahi du eta lan bila hasita euskara jakitea eskatu diote. Besteak Euskal Telebista ikustea gustuko du eta zer dioten ulertzea nahi du. Horregatik hasi dira Daniel Angel Obian eta Karin Díaz beste hamar ikaslerekin batera euskara ikasten Errenteriako Udal Euskaltegian.

ITSASO IBARRA

Argazkiak: Maddi Soroa



Daniel Angel Obian (eskuinekoa) eta Karin Díaz (kamiseta gorriduna) ikasleekin hitz egin dugu. Zapi berdea daukana berriz, Leire Zinkunegi irakaslea da.

ARRATSALDEKO ZORTZIAK. Batzuk lanetik etxera doaz eta beste batzuk karpeta eskuan euskaltegira bidean. Ukraina, Venezuela, Irlanda, Kolonia, Maroko, Ekuatore Ginea, Bolivia nahiz Errenteriakoak (Gipuzkoa) dira. Denak Leire Zinkunegiren klasera doaz, euskara ikastera. Inprimaki bat betez hasi dute gaurkoan klasea, eta ondoren,

zenbakiak errepasatzeari ekin diote jolas baten bitartez. Hasiberriak dira euskara ikasten eta jada euren burua aurkezteko gai dira. Elkarri nor diren eta nongoak diren galdetzen dabiltza giro ederrean. Tartean dira Karin Díaz eta Daniel Angel Obian.

Díaz Venezuelatik etorri zen Errenteriara. Lehengusinari bisita

egitera etorri eta bertan geratzea erabaki zuen duela bi hilabete. Bertan bizitzen geratu nahiak behartu du euskara ikasten hastera: “Lan bila hasi nintzen eta leku askotan euskara jakitea eskatzen zidaten”. Euskara hizkuntza ezberdina eta zaila dela aipatu du, baina zailtasunak ez datozkio gramatikarengatik: “Inguruan ez dut eus-

Ideiaen jatorria

Mikelazulo elkarteak, Erreterian, hainbat urte darama Herrien Astea antolatzen, eta bertan sortu zen ikastaroa egitearen ideia. Joseba Barriolak kontatu digu hasiera: “Hemengo etorkinekin harremana sortzeko nahia zegoen eta Herrien Asteak egiterakoan saiatzeko gara hori lantzen. Alabaina, harremana aste bakarrera murriztu beharrean, urtean zehar luzatu nahi genuen.

kararik entzuten. Klasean baino ez dut entzuten euskara eta horrela ez dut nire burua behartuta sentitzen euskara ikastera”.

Daniel Angel Obian berriz, Ekuatore Gineatik etorri zen Erreteriarra duela urtebete. Iritsi zenetik izan du euskara ikasteko interesa: “Bertan geratu nahi dut eta gaztelania hitz egitea gustuko ez duen jendearekin komunikatzeko euskara ikasi nahi dut”. Berak, ordea, badu beste arrazoi bat: “Euskal Telebista ikustea gustuko dut eta zer esaten duten ulertu nahi dut”. Karin Díazez dioenez, “azpitoluak jarriko balituzte azkarrago ikasiko genuke”.

Kulturak trukatzu

Talde horretako kideek ikasgelan bertan lantzen dute euskara, ohiko moduan. Baina Erreterian badute etorkinei euskara irakasteko beste modu bat: “Nazioarteko kultur ikastaroa euskara ikasten” egitasmoa. Bertan, urtarriletik apirilera artean Ukraina, Polonia, Errumania, Venezuela, Maroko, Ekuador eta Kolonbiako etorkinekin batera, Erreteriarriko zenbait lagun jardun dira bata besteari euren kultura eta ohiturak ezagutarazten. Joseba Barriolak, egitasmoaren bultzatzaileetarikoa, hala esan ditu: “Ez genuen lurraldeen inguruko azalpen magistralik egin nahi. Bakoitzak nahi zuena azaldu zuen. Azalpen horien haritik euskararen zenbait elementu lantzen saiatu ginen. Haria gramatika izan beharrean elkarrekiko harremana eta informazioa izan zen. Jai batekin hasi ginen eta bidaia batekin amaitu

genuen”. Euskara ikasteko gonbita egin nahian, txalo eta perkusio bidezko jaiarekin hasi zuten ikastaroa. Zuberoako doinu batekin, jolas eginenez, euskararen oinarritzko sei hitz ikasi zituzten: hats, hots, huts, hatz, hitz eta hotz. Munduko hizkuntzei jai bat eskainiz amaitu zuten festa, bakoitzak olerki bat irakurri zuen bere jatorrizko hizkuntzan.

Ondoren, aditzak ikasteari ekin zioten, baina gramatikako liburua erabili beharrean, hainbat herrialdeetako ohituren azalpenez baliatu ziren. “Izan” aditza ikasteko Donostiako danborrada izan zuten baliagarri. Nor-nori-nork berriz, Ukrainiako

“Zuberoako doinu batekin jolas eginenez euskararen oinarritzko sei hitz ikasi genituen: hats, hots, huts, hatz, hitz eta hotz”

Joseba Barriola

janari tipikoa dastatuz eta bertako berri jakinez ikasi zuten. Eta “eduki” aditzarekin Marokoko tearen erritua izan zuten lagun: “Erritua osoa egin ziguten; pastak ekarri zituzten eta sabel dantza ere egin zuten” dio Barriolak. Ekuadorreko musika, dantza eta janaria ezagutzeko aukera ere izan zuten ikastaro honen bitartez.

Norberak bere kultura besteei azaltzeaz gain, ikasgelan ikasitakoa praktikan jartzen aritu izan dira. Hala, Vivaldiren musikarekin erlaxazio eguna egin zuten euskaltegian, ikasitako kontzeptu gramatikalak barneratzeko.



Joseba Barriola, egitasmoaren bultzatzaileetarikoa.

Motibatu nahian

Ekintza horiekin guztiakin ikasleak euskara ikastera motibatzea zuten helburuetariko bat antolatzaileek: “Jendea hartzaile hutsa izan beharrean, partaide izatea nahi genuen. Horrela, beraien autoestima eta besteekiko errespetua landuz. Gainera, ez da izan ikasketa arrazionala; dantza, musika, janari eta mugimenduaren bidez gauzak errazago ulertzen dira eta aditzak harrapatzea errazagoa izan da. Garrantzitsuena ikasleak motibatzea izan da, badaude euskara ikasten jarraitzen dutenak”, dio Joseba Barriolak.

Apirilean amaitu zuten ikastaroa eta jendea oso gustura ibili da Barriolaren hitzetan: “Ikastaro hori, agian, ez da euskara ikasteko, baina interesgarria izan daiteke euskararen inguruko motibazioa pizteko”.

Euskaltegian bataren eta bestearen herrialdeetako ohiturak ezagututa, bidaia bat egitea erabaki zuen taldeak. Autobusa hartu eta euskaltegiko etorkin piloa Nafarroako Leitza eta Zubietara ezagutzera joan ziren. Inñaki Perurenarekin egon eta errota zahar bat bisitatu zuten.

Ikasle batzuek jaiarekin hasi eta bidaiarekin amaitu zuten ikastaroa, beste batzuek udal euskaltegian jarraitzen dute euskara ikasten. ■

Babeslea: Erreteriarriko Euskara Zerbitzua

Erreteriarriko Udala
euskarazko komunikabideen alde

euskara
zerbitzua
erreteriarriko udala